

Denbora-


1 Hizki salda

Idazlaneko zortzi hitz hartu,
eta hizkien artean nahastu ditu
Unaxek. Non gorde
dituen ikusten
al duzu?




2 Aurkitu irudian

Aitonarekin arrantzara joateko, amuak
erostera joan da Ainhoa. Dendan
dauden amuetatik hiru modelo
bi aldiz daude. Zein?



3 Lotu bikoteak


Pisu eta tamaina askotariko arrainak
arrantzatu dituzte arrantzaleek. Balio
bereko arrainak binaka jarri
behar dituzte orain.



- pasak

4 Osatu irudia


Sokasaltoan aritzeko soka bana dute ldoiak eta haren lagunek. Lotu soka bakoitzaren bi muturrak.



Erantzunak: 3.-A-F, E-I, H-D eta G-B. 4.-A-2, B-4, C-1, D-3. 5.-A eta E.

5 Giltza

Sagardo botilak ganbaran gordetzen ditu Anttonek. Ganbarako atea zabaltzen duten bi giltza daude multzo honetan. Zein?



Jolasa

Kontuz suhiltzailearekin!

Udaberrian gaude, eta edozein egunetan egun eguzkitsua egingo du. Hona hemen, egun sargoritsu baterako joko aproposa

1 Jolasean hasi aurretik, ureztatzeko mahuka edo urez betetako ontzia noren esku egongo den erabaki beharko dute jokalariek. Biribilaren erdian jarriko da ureztatzeko mahukaren arduraduna edo 'suhiltzailea', eta gainerakoak haren bueltan kokatuko dira. Biribilaren erdian pilota bat jarriko dute.



2 Biribilean dauden jokalaria baloia hartzen ahaleginduko dira. Suhiltzailea, berriz, adi-adi egon beharko du, nor mugitzen den ikusteko.

3 Jokalariren bat mugitzen ari dela ikusten badu, ur parrastada bat bota ahal izango dio suhiltzaileak.

4 Baloia eskuratzea lortu duen jokalaria ureztatzeko mahukaren jabe egingo da. Hala, hura izango da hurrengo partidako suhiltzaile berria.